

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abuztuaren 2an hartutako erabakiaren laburpena: 2024an ingeleseko C1 mailako titulu ofiziala lortzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren laguntzen deialdiaren oinarriak Vitoria-Gasteizko gazteentzat

BDNS (Identif.): 780702.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/780702>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko udalerrian erroldaturik dauden 18 eta 30 urte bitarteko gazteak.

Bigarrena. Helburua

Vitoria-Gasteizko 18 eta 30 urte bitarteko gazteei ingeleseko C1eko titulazio ofiziala lortzeko tasak ordaintzeak eragindako gastuen zati bat ordaintzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abuztuaren 2an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 30.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei lanegun laburpen hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen lanegunera arte luzatuko da epea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 2a

Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA